

EUSKARAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN EUSKARAZKO HOBEKUNTZA IKASTAROAK (2013-2014)

2013ko ABENDUAREN 3KO DEIALDIA, EUSKARAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN BAITA MOODLETIC PLATAFORMAN ETA HIRU CAMPUSETAN EUSKARA LANTZEKO IKASTARO ETA MINTEGIETAN PARTE HARTZEKO.

Euskal Herriko Unibertsitatean euskararen egoera azterturik eta Euskararen Plan Gidariak dioenari jarraituz, Euskararen arloko Errektoreordetzak irakasleek eta ikertzaileek hizkuntzaren ezagutza eta erabilera indartzeko eta zabaltzeko ekimenak sustatu nahi ditu.

Irakaskuntza- eta ikerketa-lanetan ahozko zein idatzizko euskara zuzen erabili behar dugu. Eduki akademikoak euskara jasoan eta modu zuzen eta eraginkorrean adierazteko, beharrezkoa da, zeregin horretarako gutxieneko maila izateaz gainera, norik bere buruarengan segurtasuna eta oinarritzko baliabideak izatea.

Bi eratako ikastaroak antolatu dira: ON LINE erakoak (MOODLETIC plataformaren bidez emango direnak) eta aurrez aurrekoak.

Inoiz baino garrantzitsuago deritzogu Internetek ematen dituen hizkuntza-lanabes bereziak ezagutzeari eta zabaltzeari, hala nola hiztegiak, terminologia, euskararen arauak, euskarazko softwarea, zuzentzaileak, dokumentazio-zentroak, eta abar.

Testu akademikoak sortzeko, irakasle-ikertzaileek etengabe jotzen dute itzulpena; hori dela eta, eginkizun horretan trebatzeko lantergi bat ere eskainiko da ikasturte honetan. Horrekin batera, Euskara Zerbitzuaren ohiko zuzenketa eta Euskaltzaindiaren araugintzaren berri emango da; era berean, morfosintaxiaren inguruko zalantzak argitzen ere ahaleginduko gara beste ikastaro batean.

Material didaktikoak prestatzerakoan, jakintza-arlo guztietako irakasleen premien artean testu idatziak zuzen eta egoki erabiltzea daukagu, euskara batuko arauen aldetik, gramatikaren aldetik, eta komunikazioarenetik.

Ahozko hizkuntzari dagokionez, berriz, unibertsitateko irakasleen ahozko jardunak berezko ezaugarriak ditu. Ezinbestekoa da dagokien arlo akademikoko nozioak azaltzeko terminologia eta adierazpideak menperatzea, eta, orobat, horretarako baliabide diskurtsiboak izatea. Euskara zientifikoan eta akademikoan komunikazio-gaitasunak sustatzeak berebiziko garrantzia

du, jendearen aurrean hitz egiteko beharrezkoak diren baliabideak, materialak zein ez-materialak landuz hain zuzen ere.

Gaur egun gure unibertsitatean ikusi ditugun beharrei erantzun nahian, Euskararen arloko Errektoreordetzak euskaraz irakasten duten irakasleak eta euskaraz ikertzen duten ikertzaileak trebatzeko ikastaroak antolatzea erabaki du.

Aurtengo ikastaroen eskaintza UPV/EHUko Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko campusetako euskara-zuzendariak eta Euskara Zerbitzuak elkarlanean antolatu dituzte.

Hemen duzu 2013-2014 ikasturterako antolatu ditugun ikastaroen egitaraua.

2013ko abenduaren 3tik 16ra egongo da irekita izena emateko epea.

Webgune honetan dituzu ikastaroen programak eta argibide gehiago (metodologia, edukiak, izena emateko fitxa, eta abar):

http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/p267-content/eu/contenidos/evento/ee_ikastaroak_irakasleak/eu_cur_irak/hobekuntza_irakasleak.html

“ON LINE” IKASTAROAK

OTSAILA	MARTXOA	MARTXOA-APIRILA	MAIATZA-EKAINA	EKAINA
[OL1]	[OL2]	[OL3]	[OL4]	[OL5]
UNIBERTSITATEKO TESTUAK ZUZENTZEN: OHIKO ZUZENKETAK	MORFOSINTAXIAREN INGURUKO ZALANTZAK ETA ARGIBIDEAK (EIMA)	EUSKALTZAINDIAREN ARAUGINTZA BERRIA	INTERNETEKO HIZKUNTZA BALIABIDEAK ETA EUSKARA ZERBITZUARENAK	TESTU AKADEMIKOAK ITZULTZEN TREBATZEKO LANTEGIA
20 ordu	15 ordu	20 ordu	15 ordu	15 ordu
Kenari Gómez EHUko Euskara Zerbitzua	Jesus Mari Makazaga EHUko Euskara Zerbitzua	Txipi Ormaetxea EHUko Euskara Zerbitzua	Julio García EHUko Euskara Zerbitzua	Iñigo Roque EHUko Euskara Zerbitzua
EHUko irakasleak (batez ere) eta AZPko langileak	EHUko irakasleak (batez ere) eta AZPko langileak	EHUko irakasleak (batez ere) eta AZPko langileak	EHUko irakasleak (batez ere) eta AZPko langileak	EHUko irakasleak (batez ere) eta AZPko langileak
LAU ASTE otsailaren 3tik 28ra	HIRU ASTE martxoaren 3tik 21era	LAU ASTE martxoaren 17tik apirilaren 11ra	HIRU ASTE maiatzaren 19tik ekainaren 6ra	HIRU ASTE ekainaren 2tik 20ra
25 ikasle gehienez	25 ikasle gehienez	25 ikasle gehienez	25 ikasle gehienez	25 ikasle gehienez

AURREZ AURREKO IKASTAROAK

URTARRILA	URTARRILA	APIRILA- MAIATZA-EKAINA	URTARRILA- MAIATZA	MAIATZA	EKAINA
[LAB1] LATEX DOKUMENTU ZIENTIFIKO ETA TEKNIKOEN EDIZIOA	[G1] AHOZKO HIZKUNTZA TESTUINGURU AKADEMIKOAN	[B2] EUSKARA AKADEMIKOA LANTZEKO MINTZAPRAKTIKA EGITASMOA	[A1] AHOZKO JARDUNA HOBETZEN	[LAG2] LATEX DOKUMENTU ZIENTIFIKO ETA TEKNIKOEN EDIZIOA	[LAA2] LATEX DOKUMENTU ZIENTIFIKO ETA TEKNIKOEN EDIZIOA
12 ordu	12 ordu	20 ordu	30 ordu	12 ordu	12 ordu
BIZKAIA	GIPUZKOA	BIZKAIA	ARABA	GIPUZKOA	ARABA
Edorta Ibarra (UEU)	Josune Zabala (UEU)	Gorka Lazkano (UEU)	Pablo Pagegi (IKA)	Edorta Ibarra (UEU)	Edorta Ibarra (UEU)
urtarrilak 13, 15 eta 20 orduak: 10:00-14:00	urtarrilak 13, 14 eta 15 orduak: 10:00-14:00	apirilak 1, 8, 15, 29 maiatzak 6, 13, 20, 27 ekainak 3 eta 10 orduak: 15:00 - 17:00	urtarrilak 22, 29 otsailak 5, 12, 19, 26 martxoak 5, 12, 19, 26 apirilak 2, 9 maiatzak 7, 14, 21 orduak: 13:00 - 15:00	maiatzak 20, 22 eta 27 orduak: 10:00 - 14:00	ekainak 10, 12 eta 17 orduak: 10:00 - 14:00

EUSKARA LANTZEKO HOBEKUNTZA IKASTAROAK

2013-2014 ikasturtea

Orain arteko ohiturari eta esperientziari jarraituz, ikastaroak eta mintegiak antolatu ditu Euskararen arloko Errektoreordetzak, Internet bidezkoak eta aurrez aurrekoak.

Internet bidezko ikastaroak eskainiz, irakaskuntza telematikoaren ildoan sakontzen jarraitu nahi dugu, EHUko kideei erraztasun gehiago eta zerbitzu erosoagoa eman nahian.

izena emateko epea 2013ko abenduaren 3an hasi eta 16an amaitzen da! Azkar ibili, beraz, zure intereseko ikastaroak garaiz aukeratzeko!

NOLA EMAN IZENA:

IDATZ ITZAZU HONAKO FITXA HONETAN ESKATZEN DIREN DATUAK (**FITXA BAT IKASTARO BAKOITZEKO**), ETA BIDAL EZAZU HELBIDE ELEKTRONIKO HONETARA 2013KO ABENDUAREN 16RAKO: maite.atxikallende@ehu.es

IZEN-DEITURAK*:
NORTASUN AGIRIAREN ZENBAKIA:
SAILA:
IKASTEGIA:
HELBIDE ELEKTRONIKOA:
TELEFONOA:
IKASTAROA:
IKASTAROAREN KODEA:
CAMPUSA:

***OHARRA:** ZIURTAGIRIA EGITERAKOAN ESKAERA ORRI HONETAN JASOTZEN DITUGUN IZEN-DEITURAK ERABILIKO DITUGU

OHARRAK:

1. Taldeeteko ikasketari kopuru mugatua dela eta, ikasketariak ahalegin berezia egin behar du eskatu dituen ikastaroetan (eta bereziki Internet bidezkoetan) parte hartzeko.
2. Ikastaroak dohainik eskaintzen dira.
3. Ikastaro guztiak irekiak dira hiru campusetako kideentzat.
4. EHUko irakasle-ikertzaileek izango dute lehentasuna ikastaroetan, baina AZPko langileak ere onartuko dira leku libererik baldin badago.
5. Taldeak osatu ahala idatziko diegun interesatuei, onartuta dauden ala ez jakinarazteko. Erantzutean, lehentasuna izango dute lehenbizi (urtarrilean eta otsailean) eskainiko diren ikastaroetarako izena eman dutenek.



Xabier Etxaniz Erle
UPV/EHUko Euskararen arloko errektoreordea